

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

5806

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 21ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Zerbitzu zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita 2022ko urriaren 5eko Aginduaren bidez egindako laguntza ekonomikoen deialdian nekazaritza-sektorea finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbateko berria (Agindua, 2022ko urriaren 5ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez laguntza-deialdi bat argitaratzen baita, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialeiei laguntzak emateko 2022ko ekitaldian, azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuaren esparruan. «Elkarteak» programa).

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko urriaren 5eko Aginduak (zeinaren bidez laguntza-deialdi bat argitaratzen baita, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialeiei laguntzak emateko 2022ko ekitaldian, azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuaren esparruan. «Elkarteak» programa) lehenengo ebazpenean ezartzen du berrehun eta hogeita hamabost mila zazpiehun eta laurogeita bi euro (235.782,00) bideratuko direla horretarako 2022. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan ezarritako aurrekontu-kredituaren arabera. Zenbatekoa honela banatuko da:

Nekazaritza sektorea: ehun eta hogeita hamabost mila zazpiehun eta laurogeita bi euro (135.782).

Elikagaien sektorea: ehun mila euro (100.000).

Bestalde, azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuak 2. artikuluan 3. zenbakian honako hau ezartzen du: «eman beharreko laguntzen kopuruak ez du sektore bakoitzerako aurrekontu-konstignazioa gaindituko, ez eta indarreko legeriak kreditu-loturari edo aurrekontu-aldaketari buruz aurreikusi duenaren arabera aurrekontuetan ezarritako kopuru hori eguneratzen ateratzen dena ere. Halakorik gertatuz gero, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Zerbitzuen zuzendariaren ebazpen batek emango du horren berri, dirulaguntzak esleitu aurretik».

Horrenbestez, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak erabaki du, egoki diren izapideak egin ostean, 2022ko ekitaldirako nekazaritza-sektorerako finkatutako kreditu propioak hirurogeita hamabi mila seiehun eta bat euro eta hogeitazentimotan handitzea (72.601,20).

Arestian azaldutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorra Antolatzeko Printzipioen Legearen testu bateginekoko 49.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz eta azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialeiei zuzendutako laguntzei buruzkoa. «Elkarteak» programan) ezarritakoaren arabera, zenbatekoaren handitzea argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Azalduko guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Argitara ematea Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko uztailaren 31ko Aginduan nekazaritza-sektorerako bideratutako baliabide ekonomikoen zenbateko

2022ko abenduaren 30a, ostirala

berria (Agindu horren bidez argitara ematen da, 2021eko ekitaldirako, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialeiei laguntzak emateko deialdia, Elkar-teak programa, azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuan), berrehun eta zortzi mila hirurehun eta laurogeita hiru euro eta hogeitazentimokoa (208.383,20); horrela, Elkar-teak laguntza-programara bideratutako zenbatekoa, guztira, hirurehun eta zortzi mila hirurehun eta laurogeita hiru euro eta hogeitazentimokoa da (308.383,20) 2022an.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 21ekoa.

Zerbitzu zuzendaria,
IÑAKI ALDEKOGARAI LABAKA.